

"GURE BOKDA"

LEHEN ZARIA

Larunbat goiza da. Ama ari da igandeko lisatzen egiten eta alaba sartzen da hiru tipula eskuan.

ALABA-AMA

ALABA Nun behar ditut ezurri ?

AMA (Irriz ari da)

ALABA Zer duzu irriz am ?

AMA Bainaz neska, nik **bi** porru **ekartzeko erran** denit. *porrak*

ALABA Eta nik hiru ekurri.

AMA Hiru ekurri bai eta parrunik bat ore ez.

ALABA Zer dira hauiek ?

AMA Tipulak neska, **hi** bezain tipulak. Horra zer den gauaren galtzea.

ALABA **Barda, goizik etxeratu naiz ama.**

AMA Barda, edo egun **goizean** goizik, zonbat orenak ziren?

ALABA Ez duzu **behatu** ? Nik ore ez ...

AMA Sun deburu **egon haiz lau orenak arte.** ?

ALABA Nork erran **dauztu lau orenak zirela** ni etxeen sarkzean,

AMA Aitak.

ALABA Ez duke ongi ikusi, gau erdi eta hogezi zitazken.

AMA Galdegin denit nun **egon haizen barda lau orenak arte.**

ALABA Ez da nere faila **aibak orratz ttipia orratz** haundiarentzat **hartu badu**.

AMA Nolaz ditake beraz gau erdi eta hogeietan etxeen balinbahintzan, nirk orenetan oraino ez **baibintzan**, heure ohean ?

ALABA Zer zira hiru orenetan nore **ganberan** izan ?

AMA Bai, eta **heure ohea Hutsa** harrapatu.

ALABA Hiru orenetan napaldian **lo ninkagon**.

AMA Nun ?

- ALABA Anaiaren ganberan.
- AMA Sekulan ez eta, zendako barda lo egin dun anaiaren gauberan ?
- ALABA Nere ganberako ateak arrabots haundia egiten baitu eta ez bainuen nahi zuek iratzar-arazi.
- AMA Eta zer uste dun ? heure segitzen izan den otoaren arrabotsa ez dugula entzun ?
- ALABA Haizea zitaken.
- AMA Haizea bai, eta bi zalditako bat harekin. Baino, n nun debru egon haiz barda, lau orenak arte ?
- ALABA Zer nahi duzu, nik ez dezaket bertzerik egin; etxeratzen naiz, bertzek ekartzen nautelarik.
- AMA Eta, barda, nor zen heure segitzailen ?
- ALABA Denise Largateikoa, usaien bezala.
- AMA Noiz kanbiatu du harek otoa ?
- ALABA Ez du kanbiatu, berea kolpatua da eta hontakotz barda bere anaiaren otoan zen.
- AMA Bego hortan, eta zonbat orenetan bururatu da bardako biltzarren ?
- ALABA Nere ordularian bi orenak pasa baziren, aintzinatzen ez badu segurrik.
- AMA Hori ez, nik badakinat leku segurretik gau erditako akabo zela.
- ALABA Nork sakatu dautzu ilor hori ?
- AMA Hi ieiki aintzin badun norbeit izana gure etxeen.
- ALABA Jaun Erretora bederen ?
- AMA Ez, emazteki bat.
- ALABA Mayie saltsa ?
- AMA Ez.
- ALABA Beronika nahasia ?
- AMA Ez eta ere.
- ALABA Berdin du, ez dut jakin nahi ere nor den bazter nahasten ari. Batean herriko mutzurdinak hola errana, bertzean tanta (izeba) Filomenak hala ikashti, ni aspaldian pasatua naiz bertzeek zur erranen dutenaren beldurretik.

- AMA Baino neska, berriz errran oñi ero, mun egon maiz barda hain horant?
- ALABA Berdin jakinen baizuzu, errmen dautzut dena den. Biltzarrek iraun du gau ordi arre.
- AMA Hori otsakintas 'ti jeiki gabe.
- ALABA Eta zero paper batzu zinoldu dugu bezter horietan.
- AMA Zer paper?
- ALABA Huna bat : "gazten gozotak", 45 urteko erranda haundi dudenentzat, 65 urteetan ere hande mukito lena nun nahi. Baino guk gizsek ez dugu herrim lanik. Zer egin? Norat joan?
- AMA Lona duna eskas? Ago eoxean beroan, barnuzen badinet aza taloi (leku) bat ederre jorratzeko.
- ALABA "Efizio bati buruz guti argitzen gaituztak eta biziari buruz batere ez. Laborari etxenak hutsen ari dira. Laster gure ikualdeenz desertu haundi bat eginen duse. Laborari tipiak alde egin beharko dute eta beti bezala, makinun tipi jaleak, errege izanen dira. Hori ezin onartua da. Horren gainik behar dugu jakitate gehiago bildu."
- AMA Jakitate gehiago bildu... egia haundi, hozoi urtetan ez dakin soin ziren porrusk eta soin tipulak.
- ALABA Paper unek erran nai duen jakitzena ez da zuk dioxun bezalakoa nma.
- AMA Errana dena jadanik ere jakitarea galgarri dela.
- ALABA Jakitzen galgarri? Baino, guk jakitaten baina, norekin galgarri baituke nma? Gure galgarri? Als gutaz balintzen direnen galgarri?
- AMA Beti arrazoiai duni nerokin bederen bainh hola segituz nik ez dakinaz zer egingo dazuen.
- ALABA Herrin azkocu.
- AMA Zarria bhakatu?
- ALABA Gure herrian bada hola ere aski zerrikeris.
- AMA Bai eta arras marke, segi, segi.
- ALABA Lanik ez duguno, jakitetarik ez du jaso, lanegi-rik ez deno, ez dugu onarren : Eliza Berrien egiteko eskeak izan diten."
- AMA Ez otoi holakorik erran, alaba, aire gaiztoak erroko zeitin.
- ALABA Rogazionetako prososioetan, apezak airen benedikatzen du ez dadin aire gaiztarik izan.

- AMA Zer ditutzue, gisa hortako solasak ibiltzen gazten artean ?
- ALABA Zer uste duzu ? beti denboraz eta bertzeen erranetaz bhizil ez girela minzatzen, batzu bezala ?
- AMA Bertzeen erranetaz...
- ALABA Berzeen erranetaz, bai ama. Hunek kasetan horrela ikusia eta horrela da. Harek, telebistan horrela erran eta ez da dudarik. Apezak predikutik hori erran eta ez da bertzerik.
- AMA Zendako dira, berauz hoinberze izkirio eta mintzaldi ?
- ALABA Batzu gure itsu-arazteko eta bertze batzu guri nahi dutena sinets arazteko beren abantailletan.
- AMA Hi ere bertzen ideiek ote habilan, beldur naun.
- ALABA Ez ama, entzun zazu, argitu nahi zaitut.
- AMA Bai eta argitzeko partez, gogoa iluntzen dautan.
- ALABA Alabaina, indarra dutenek, zure baitan, beren ideiak sartuak dituzte. Ni indar gabea izanki eta, zure burutik, horiek, nola ken dezanket ?
- AMA Habil otoi baratzera bi porruren bila. Edo, ez, segizan nere tokian, hobe dinat nihaurek joaiten, bertzenaz hik porruen partez bi pastenagre ekarriko daiztan.
- ALABA Bularretako hnuiek ere lisatu behar ditut ?
- AMA Nylon-kiaak ez ditun lisatzen neska. Ez dakin: ez lisatzen, ez iosten, ez kozinatzen. Nik ez dakinat, noiz ikusi behar dunan hik bizitzen. (joaki da)
- ALABA (Bakarrik, jarririk ari da lisatzen, mokanes bat egin eta burua pauza.) Gaixo ama, nik ez dakit zoin den xarbotia (tomillo) eta zoin den perrexila baina ez naiz manduan bakarra (Pausa) A, barda lo egin baino bederen.
- (Burua bi eskuen artean du, erdi lo. oto batek turrutatzen du eta punpean joaki da.)
- AMA (Sartzen da bi porru eskuan eta chartzen da lisa-burdina oihalaren gainean utzia duela.) Neska lukainka, nik ez dakit noiz bilduko duen funts doi bat, sekulan ez naski.
- ALABA (Sartzen da) Zuentzat ere bada gutun bat.

AMA

ALA

AMA

ALA

AL/

AI

AL

AM

AL

AM

AI

AM

AI

- AMA Heure bularretakoek bero aldi bat ederra hartzer
dine.
- ALABA Zer da ?
- AMA Zer den ? Ez dakinha lisa- burdina hunen gainean
pausatu behar dela ?
- ALABA Bai ama.
- AMA Eta beraz, rez eginen huen heure bularretakoak
erre balire ? Bihar etxeau egon beharko.
- ALABA A, hori ez, horiek gabe joannen banintzan ere. ~~ed~~

AMA-ALABA-AITA

- AITA. (Sartzen da) Zonbat orenak dira ?
- ALABA Aita, ez zaitela otoi, bota zikin horiekin sukal-
dean sar.
- AITA Zer zikin dute ? izar ihintzean garbituak ditinat:
(Turruta bat entzuten da, urrunetik)
- ALABA Ogiketaria, joaki naiz.
- AMA Ordú onean heldu zira : Pariseko semearen gutuna ~~lehi~~
badugu.
- AITA Gaizo Jakes, zer dio ? Ongi da ?
- AMA Sègidan ikusiko dugu.
 Aita eta ana maiteak,
 Ez da Valdia Pariseko berriak etxera igortzen
 dituztala beraz ez naiz beti gauza beren errepikatzen
 ariko. Gogoeta ~~naiz~~ luzaz eta funski deli-
 berò bat haritu ~~nintzinetz~~ onmiminihaunethz ~~segur~~
 naiz, hautun egina dut : herriz herrira nahi dut
 itzuli. Nere emztegia ere okaztua da hemengo
 bizi moldeaz? Galdu diot aldi bat baino gehiago-
 tan Ameriketara joan nahi duenez eta harek ere
 erraiten daut :" neretzat ez da amerikarik,
 Eskual Herria balio duenik." Beraz idutimzen zuku
 gurea egin dezakegula gure sorlekuan berean. Gisa
 guziz, ez gira nihun orain Parisen ~~xiren~~ baino
 dohakabeago izanen. Nola lunarat etortzean ofizio-
 rik ez naukan, sei hilabetez ibili naiz, hargin
 eskola batean eta orain hargintzan segituko dut.
 Nere maiteak aldiz lan bera egiten ahal luke
 Baionan edo inguru horietan. Baina, berriz itzul-
 zekotz aterbe bat behar ginuke eta pentsatu dut,
 gure herrian, gure etxeau, auherrik eta hutsik
 hor dagola "Gure borda" Ez litaike munduan atsegin
 haundiagorik neretzat, zuen baimena banu : gure
 bordaz etxe polit batzen egiteko. Sorlekuan eta
 aita-ameri hurbilduz, zer bozkarioa ez litake
 neretzat, etxekoen lehen auzoko izaiten. Agian nere

aments hori egin bilakatuko da? Bitartean, zuen erantzunaren zai nago, pentsatuz lehen bai lehen idatziko duzuela.

Gorputzez urrun, baina bihotzez hurbil.
Mila misu.

ALABA

Jakes.

AMA

AITA Zuk zer diozu ?

AMA Nere baimena segidan baluke, zuren ?

ALABA

AITA Nerea ere bai, baina beraze anai-arrebek zer erranen dute ?

AMA Zer nahi duzu erran dezaten ?

AITA Zazpi haurreide badira, eta etxeko, bat aski.

KRIZHI

Soldadoari
AMA Soldoari etxe utziko dugu, Jakes-i borda eta bertzeak neskak dira, aski dute etxe oneko seme batzueri begiratzen.

ALABA

AITA Beharba bi mutzurdin gelditu beharrak dira eta bertzeak serora joan,

KRIZPI

AMA Gerokoak utzi geroko eta gauzen oraikoz, zer behar dugu Jakesi igorri ?

ALABA

AITA Zuri zer iduritzen zautzu ?

KRIZTI

AMA Gure borda emaiten diogula gogotik.

ALABA

AITA Emaiten, emaiten, errez da erraiten, emaiten urrirrik da.

KRIZPI

AMA Zer uste duzu ez duela *urrirrik* edo merke nahi ?

ALABA

AITA Halere urrirrik eta merkera bada bide.

KRIZTI

AMA Zer behar dugu gure semeari gure borda saldu ?
Paga arazi ?

ALABA

AITA Ez dakit, badugu gero ere denbora mintzatzeko, orain joan behar dut *sasi* mozten segitzera, ez baititu nehortik egiten nik egiten ez baditut.

ALABA

AMA *letrahundi*
Baina gizona, gutunahundi ihardestea sasi mozten baino presatuago da. Errazu zer behar diotan ihardetsi.

KRIZTI

AITA Zuhaurek ikus.

ALABA

AMA Eta zure partez zer behar dut ezarri ?

KRIZTI

AITA Nik etxaldean hartu bezala utzi nahi dutala osorik eta etxeko segida hartzen duenarekin dela etxe parteak egitean.

ALABA

AMA Arrazoin duzu, hori eta bera igorriko diot, egun berean.

(Aita joaki da kampora, ana aldiz subardara Sartzen da alaba ogiekin. Ama ere berriz sukaldera heldu da.)

ALABA Hiru ogi hartzu ditut beti bezala.

AMA Ongi dun, orain kasu egizan suaren gaihean ezarri dutan esneari. Joan behar dinat gaineraino.

ALABA Kasu eginen dut, zaude gostuan.

(Aita joaki dn)

ALABA-KRIZTINE

KRIZTINE (Sartzen dn) Ez da nehor ?

ALABA Ni bakarrik.

KRIZTINE Zer ari hañz ?

ALABA Esnea irakin zai.

KRIZTINE Lo egin dun ?

ALABA Egin nezaken gehiago ere, bárda, debrua ikusi dinat ezin lokartuz.

KRIZTINE Zer hintzan, Gabriel gogoa ?

ALABA Ez, hurbiltzekorik ere.

KRIZTINE Pantxo ?

ALABA Oraino gutiago.

KRIZTINE Zer huen beraz ezin lokartuz ?

ALABA Oilarra, oilar bat tirahala kukuruka.

KRIZTINE Aski dion lepoa bihurtzen.

ALABA Banaki zoin den, egin dezaken laster.

KRIZTINE Zonbat oilar ditutzue ?

ALABA Baditun hiru zaharrak eta naski oilarisko batzu ere oilarzen hasiak.

KRIZTINE Eta noiz jeikin haiz ?

ALABA Bederatzi orenetan, eta hi ?

KRIZTINE Orain doi doia, humaika orenetan.

ALABA Beraz ez dun gauza haundirik eginik.

KRIZTINE Lan haundirik ez, baino litaniak adituak ditinat eskuaraz eta latinez, bietan.

ALABA

ALABA A bai, hik ere ?

KRIZTINE

KRIZTINE Bai, batean biltzarrenk, bertzean antzerkia, merkatura ez bada dantzara, aste egun ala igande beti kurri girela.

ALABA Utzi, utzi mintzatzera, gu baino lehenago geldituko ditun berak. Ni segurik aspaldi pasatu nuen bertzek zer erranen dutenaren adinetik.

AMA

KRIZTINE Ni ere bai, baina etxekoak ez bada, kanpoekoak bederen entzuten ditinat nitaz mintzatzzen.

ALABA

AMA

ALABA Baina Kriztine, utzi mintzatzera. Nahi dutena erran dezatela. Hori berdin zaukun. Baitezpadakoena guk egiten dugun lana dun.

KRIZTIN

AMA

KRIZTINE Arrazoina. Ez dinat uste jende zaharrekin zerbeit egiten ahala dugula... Gure Herria zertan den, gaztemi diagun senti arazi behar. Zaharrek ez dinez deus konprenitzen.

ALABA

ALABA Gaztek gure alde badira, chartzen badira gure galtzaleak zoin diren, orduan partida irabazia diagun.

KRIZTIN

KRIZTINE Bardako biltzarren biziki ona zunan...

ALABA

KRIZTIN

ALABA Horrelakoak behar litazken aste guziez. Jendeen, populuari egia osoren jakinarazten, hori, gauza izigarria dun...

ALABA

KRIZTIN

KRIZTINE Uste dinat, Gabriel-ek gure problemak biziki ongi ikusten ditueka. Neri segurik zermihai ikas-arazi daitan...

ALABA

ALABA Neri ere bai? Biziki buru argia din. Eta zer langilen. Kutxu-kutsu, beti zerbeit ari dun. Bizi-pahirur aldiz, etxera etorri dun, eta, sukaldetutako hantzen zonbeit solas ibiltzen ahala ez ginituelako nere ganberan sar-arazi dinat... Luzaz mintzatzten gintunen gure Eskual Herriaz eta haren salbatzeko hantzu behar dugun bidez... Artikulu asko idatzi ditinagun elgarrekin...

SEMEA

KRIZTIN

ALABA

SEMEA

KRIZTINE Hori bazakinat...

ALABA Alta, auzokoek ez zituenan ez uste, gure Herrriagatik lanean ari ginela bi biak ganbera batean.

KRIZTIN

SEMEA

KRIZTINE Baditun beti arima garbiak, bertzen zikintzen arta hartzen dutenak, lagunak ukaiteko.

8/13

ALABA Erbi saltza on basen egiten ez dakine, eta jende saltza egiten, zoin trebe.

KRIZTINE Bultaka nahiago niken bortuan, abere basen eta zakur urrhurien erdian bakarrik bizi, horrelako jenden erdian baino.

ALABA-KRIZTINE-AMA

AMA (Sartzen da) Zer da esne erre usain hori ? Neska toleta.

ALABA Oisus. Ni ohartu gabe goiti joan da.

AMA Ez din lehen aldia... Zer dion Kriztine, hemengo aldi ?

KRIZTINE Eznakien denbora nun pasa eta...

AMA Nik segurik banakiken (Joaki da)

KRIZTINE-ALABA

ALABA Eta, zoin huen asarrenik aita, ala ama?

KRIZTINE Biak berdin. Batek huia; bertzeak naka, batek xanpa, bertzeak ausik.

ALABA Eta gero ? Zer egin dun ?

KRIZTINE Kantuz etorri hunaraino.

ALABA Kantuz, zer kantu ?

KRIZTINE "Gauden aitak iduri fededun laborari."

ALABA-KRIZTINE-SEMEA

SEMEA (Sartzen da soldado beztimentan) Kantu hori entzutearekin uste nuen elizan sartzen nintzela egun on serora geiak.

KRIZTINE Egun on apez- geia. (Besarkatzen dira)

ALABA Anaia maiten, ez gintukan segur hi gogoan.

SEMEA Badakinat soldadoez ez dela nehor guti baizik oroitzen. Guk aldiz, eskualduñ neskigantzen eta Eskual Herria ez ditiagun sekulan ahanzten.

KRIZTINE Eskual Herria hitz hori...

SEMEA Eskual Herria hitz hori eta lur hori hemendik urrundu-eta dun, bakarrik ezagutzen eta maitatzan.

- KRIZTINE Beti Alemanian haiz ? *aite zunan* SEMEA
 SEMEA Bai, eta ere han egon ~~zunan~~ 5 urte. AMA
- ALABA Hango neskak biziki ederrak omen dituk ? SEMEA
 SEMEA Ez dia gun bihirik ikusten ere... AMA
- KRIZTINE Nola pasatzen duzue denbora, neskak ikusi gabe ? SEMEA
 SEMEA Ikustea bat dun, baina ikusi eta ere Aleman eta bati nola mintza ? AMA
- KRIZTINE Heure aita ere hasi zukan lehenik keinuka eta gero emeki erieki alemana ikasten. SEMEA
 SEMEA Uste badun Alemana ikasteko gaitzia badutala, Frantsesa bortxaz ikasia izanki eta... AMA
- ALABA Ala, ez duzue denborarik ? SEMEA
 SEMEA Badinagun bertze egitekorik. AMA
- KRIZTINE Nola pasatzen duzue denbora ? SEMEA
 SEMEA Ahal bezala. AMA
- ALABA Zer artzen riresta ? SEMEA
 SEMEA Beti zerbeit ota deusik ez. ALABA
- KRIZTINE Oraiko soldadoak ongi direla diotek. SEMEA
 SEMEA Bizi ongi, etxe an baino hobeki. ALABA
- ALABA Zer pena neskek, ez baitute oraino soldadogorik egiten. KRIZTINE
 SEMEA

ALABA-KRIZTINE-SEMEA-AMA

- AMA (Sartzen da) Ramuntxo, nere semen. Nola etorri haiz ? SEMEA
 SEMEA Lehenik burdin bidez. ALABA
- AMA Eta gero ? (Besarkatzen dira) KRIZTINE
 SEMEA Oto-stop, neskak bezala. ALABA
- ALABA Guri bezain aise gelditzen dituk ? KRIZTINE
 KRIZTINE Zonbeit aldiz mutiko ile luze horieri ere gelditzen ditun. ALABA
- SEMEA Bai, ustez eta neskak eder bat den. KRIZTINE
 AMA Noiz arte etorrria haiz ? ALABA

- SEMEA Hamar egun.
- AMA Bizi ki ongi heldu haiz. Herriko bestak, heldu den ignadean ditinguk.
- SEMEA Hobe segur. Jostatzen ahalko naiz.
- AMA Gaixo Ramuntxo, ~~ainsegin~~ haundia diat hiro berriz ikustea.
- SEMEA Nik ez ote ?
- AMA Nahi duk zerbeit ? Gose haiz ? Arraultze eta xingar prestatuko dent, edo bi lukinka xixter ?
- SEMEA Ez du balio ama. Ez naiz gose.
- AMA Funtsean, laster bazkalduko gaituk. Jar hadi bederen, hain segur akitua haiz. Bazkal ondoan, lo aldi bat ederra egiten ahalko duk... Mihiseak ere zuri zuriak dituk.
- SEMEA Ongi da ama. Ongi da...
- AMA Baniak, nere lanetara... Ago-neska hōrieikin... Segur nuik badutela zer eta zer erran...
(Joaki da)

ALABA-KRIZTINE-SEMEA

- ALABA Errak Ramuntxo, ~~ga~~ur dantzatzen goatzik, gurekin etorriko haiz ?
- SEMEA Berdin bai eta berdin ez, gero ikusiko.
- KRIZTINE Zer haiz ahalge ile laburrak dituzkalagoan ?
- SEMEA Ez baitezpada. Aldatzerat joaki naiz.
- ALABA Atoz segidan, ~~ian-~~aintzinakon hartuko diauk hiruek elgarrekin.
- SEMEA A. Hori bai... (Jonki da)

ALABA-KRIZTINE

KRIZTINE Eta hi, noiz etxeratu hintzan barda ?

ALABA Lau oronetan eta hi ?

KRIZTINE Argi urratzen. Gure etxeak argia bizi.

ALABA Nor zen sukaldean ?

KRIZTINE Ama, goizeko otoitzaren egiten ari.

ALABA Hik egiten ditun otoitzak goiz-aratsetan?

KRIZFINE Sekulan, eta hik ?

ALABA Nik ere ez.

KRIZFINE Nola hartu dute heure etxeen paper hura ?

ALABA Ez dinat oraino amari baizik erakutsi.

KRIZFINE Nik ere nere ahizpari bakarrik.

ALABA Zer dio Maider-ez ?

KRIZFINE O, harentzat ere badela oraindik aski eliza. Alabaina, harek-ere, bertze ainitzek bezala bere geroak din arrangura haundiengoa. Gure eskualde-hauestan lantegi guziak hesten ari ditun... Eta ez dauzkun Elizak sakelak beteko. Orainekoan segurik, husten dauzkuneta...

ALABA Egia haundia. Jainkoa. Beharrik gure hit'amek ez gitine entzuten.

ALABA-KRIZFINE-SEMEA

SEMEA Hemen naiz.

KRIZFINE Laster egiten dituk hik, harat-hunaratzak.

SEMEA Ez beti bainakien ordu oneko etorri behar nuela.

ALABA-KRIZFINE-SEMEA-ALITA

ALITA (Sartzen da) Zer da egun ere besta gure etxeen ?

ALABA Hala iduri luke.

SEMEA Agur aita.

ALITA To Ramuntxo, gaizo mutikoa, hemen haiz ? (Besarka) Frantzia behar bezala zerbitzatzen duk bederen ?

SEMEA Hola holaxet... Eta zu aita, nola zira ?

ALITA Ongi... Ongi eta hi ?

SEMEA Xoria ohantzean bezain airos.

ALITA Zonbat egunentzat etorrria haiz ?

SEMEA Hamar egun, labur izanen dira.

ALABA Aita, zatoz gurekin brindiz egiterat.

ALITA Ez hortarik ez, nik nahiago dinat baso bat gorri.

ALABA Ekarriko datutzut beraz gorritik.

ALBA Zer dion Kriztine ? Arras ixil hago.

KRIZTINE Beldur naiz sobera erran.

ALBA Zer, bardako berriez ?

SEMEA Zer zen barda ?

ALBA Hobe aise bereri galdatzen eta ni hemen ez naizelarik.

ALABA Bertzenaz ez baituk egia osoa jakinen.

KRIZTINE Alabaina, badituk gauza batzu erraisten ahal ez direnak.

ALBA Errak Ramuntxo, soldado jantziak laster aldatu dituk...

SEMEA Ez bainintuen zikindu nahi.

ALBA Zer haiz, lana gogoan etorria ? Biba hi, zerritegiak urdeak bezain zikinak dituk eta zerriek basurdenak iduri.

SEMEA Eta gero ?

ALBA Ez zuuk gogoratzen ?

SEMEA Ez.

ALBA Nahi nitek goiz huntan behin garbitzen ahal bahintun.

SEMEA Zer zerrirak ?

ALBA Ez mitikoa, zerritegink.

SEMEA Eginen ditut, hitzemaniten dautzut.

ALBA Heo ben, lehen bezain ongi eginen dituzkanez ? Ni, mahastirat noak, itzuli bat. Maritxu; ama nun da ?

ALABA Ez dakit, ez da bulta huntan ageri.


ALBA Gero arte (Joaki da)

ALABA-KRIZTINE-SEMEA

KRIZTINE Nik ere joan behar dinat etxa alde.

ALABA Zer presa dun ? Bertze erasi aldi baten entzuterat ?

KRIZTINE Hori gauza segurra : " Nun hintzan neska ? Banzkal orduko beti nunbeitik ateratzen eta patata xuriuzeke orduan sekulan ez ageri."



ALABA Guk segurik, lur sagarrik ez dugunean,
pois cassé jaten dia gun. Aski duzue berdin egitea.

KRIZTINE Aitak ez din maite.

ALABA Aipn zaoin gerla denboran zer jaten zuen ?
Segur nun gero, pois cassé iretsiko duela.

KRIZTINE Aise mintzo haiz hi.

ALABA Krizzine, patita xuritzen janiteko, orde, nere
ganbera-ra etorri hadi, bi dizka berri entzun-
nraziko deztenat.

SEMEA Ni ere etortzen ahal naiz zuekin ?

ALABA Berdin, zendako ez ?

(Eta hiruak joaki dira, kantuz errepikan
"Ez zian aberatsa, ez zian pobrea, baina haren
bihotza, zer urrezko kalitzo")

AUZAPEZA

AUZAPEZA (Sartzen da bere etxeen bezala) Gazte horien
omoren. Bazterrak, horiek nahasten dituztela,
nork erron lezake ? Nun zira Dominika ?

AUZAPEZA-AITA

AITA (Sartzen da) Egun on jaun mera, zu hemen ?

AUZAPEZA Ezin uka, nere etxeen bezala sartu naiz.

AITA Behar ore, ez ahal zira ateain egonen eskelari
bat bezala ?

AUZAPEZA Eske etorria naiz, eske.

AITA Zu bezalako eskelariak ez dira maiz etortzen.
Zarea nun duzu ?

AUZAPEZA Zarean baino gehiago eramanen dut huntas.


AITA Jar zaio jaun mera, jar.

AUZAPEZA Milesker.

AITA Eta, nere paper heietz, jaun prefetak zer
errantzun eman dautzu ?

AUZAPEZA Lehen bai lehen, behar dena eginen duela eta
egoiteko gostuak bere egin ahalak eginen
dintuela onartua izan dadin.

AITA Biñg hura, a, zer gizona.



n egitea.

AUZAPEZA Errana nauntzun, haren ikustera joanen nintzela eta nerekin, hitza, hitz da.

Astezkenean egun osoa hartu dut berarekin solastatzeko eta garbiki erran dirot, nere herriko adixkide haundienebarik bat zirela eta hortakotz baitezpada nahi dutala zure galdea onartua izan dadin.

AITA Milesker jaun mera, milesker. Zer hartuko duzu "Ricard" bat, ala nahingo duzu arno xorta bat?

AUZAPEZA Ricard bat berdin, Baigurako urarekin.

AITA Baigurako ura, zuri esker dugu hori ere jaun mera, ez du berdin balio. Lehen, zer bidea ez ginuen egin behar egun guziez, iguzkiak sobera berotu gabe, edateko ur-keta errekarat?

AUZAPEZA Eta ziternako ura?

AITA Bai, nere emazteok behin ikusi zuen sukaldetako errobinetatik, holako zizari bat ateratzen eta geroztik akabo, ez zuen kozinaren ura ere hortarik nahi.

AUZAPEZA Ez da harritzekeo. Orain, denek baduzue herriko ura. Helduden urtean behar ginuzke etxe guzietarat bideak egin, bozeten pasatzen balinbagira segurik.

AITA Ez da dudarik, zer ziratkontrarioen beldur?

AUZAPEZA Alabaina, herritarrez geizki ikusia izaiteko aski da ongi egiten.

AITA A, hori ala da.

AUZAPEZA Azken aldian ere, badakizu nor nuen etsairik haundiela?

AITA Ez naiz oreitzten.

AUZAPEZA Pottoloteiko okerra.

AITA Gaizo pottoloa.

AUZAPEZA Nere denboran egin dutan zerbitzurik gehiena hari egin ondcan. Neri esker hasia da zahar arranda 60 urtetan hunkitzen eta neri esker du heien Pettan-ek ere soldado zerbitzuril ez egin, eta gero...

AITA Beti hola da jaun mera, ez du balio holako jenderi kasu egitea, ikusi eta nor diren: IS ardi, erdiak segurik mainku eta o behi zahar, zakurra bezain gizen.

AUZAPEZA-ALIA-AMA

AMA (Sartzen da) Ongi etorri jaun mera. Ori, bazterrak garbiak harrapatzen dituzu.

AUZAPEZA Egun on, etxeko anderea, zaude gostuan, ez dut bazterri biziki behatzen aintzinean "Rikarra" delarik. Zuen osasunari.

BIEK On egin dersutzula.

AUZAPEZA Biak hemen zirezteno behar dautuet erran zertarat etorria naizen.

AITA Eske etorria omen da...

AMA Leku txarrera heldu zira sosketa gure etxera.

AUZAPEZA Ez naiz sosketa heldu anderea.

AMA Sos ekartzerat beharba ?

AUZAPEZA Bai, uste ez baduzu ere.

AMA Hori bertzerik da.

AUZAPEZA Huna. Lehenik behar dautuet galdu egiazki ni baitan konfientzia baduzuenetz ?

AITA Konfientzia, jaun mera ? Nik segurrik bai, zer zira dudatzen ?

AMA Nik ere bai, zendako galduzen duzu hori ?

AUZAPEZA Zeren, badira beti izpiritutu bilurri batzu, heieri zerbitzu egin nahiz, heien etxera joan eta burua gora erranen dutenak :"Ez da gure etxetara heldu, gure fagoratzeko, ele ederra dariotela."

AITA Bada denetarik mundu hantan, gu ez gira horietarik.

AUZAPEZA Hortakotz etorria naiz zinez adixkideki. Aste hantan, Parisetik letra bat ukat dut. Parisoko jaun haundi baten ganik. Ongi ezagutzen dut, gerlako lagun bat da.

AITA Gobernamenduko gizonetarik ?

AUZAPEZA Erranen dautzut segidan. Horren aita Frantzi-ko errepublikako president ohi baten anaia zen eta horren semea aldiz, orain armadako ministroaren sekretario da.

AMA Ez da nor-nahi. Jende aberatsetarik.

AUZAPEZA Egin diozu, aberatsetarik. Holako horiek badute diruz nahikoa eta bazinakite zer nahi duen ?

AITA Jainkoak ahal daki ?

AUZAPEZA Behar dena pagatuz ; borda bat.

AMA Holako jaun batok ez ahal du ardirik ?

AUZAPEZA Erran gabe don. Borda bat nahi luke eskual herri ederran, mendieni hurbil, itsasotik ez urrun, bakanzen pasatzeko. Zorigaitzez ez da borda eskuak gure herrian. Bainan, lehen lehenik istorri naiz zuen ikusterat : adixkide bezala. Zuen borda...

AITA Bainan, gure borda, arras zaharra da, murrunk makurrak ditu eta teilatua zartua.

AUZAPEZA Mortakotz, zuentzat ez du deus balio eta harek hori aski...

AITA Bainan, jaun mera, ez du itxurarik ere, nola nahi duzu gure borda zaharrean holako jaun bat laket dadien ?

AUZAPEZA Berdin, zuek ez duzue sekulan borda hori antolatuko eta harek sosa mustupilka badu hor bizitegi batzen egiteko.

AMA Eta zer gizon da diozun hori ?

AUZAPEZA Nere adixkide haundi bat da, izigarriko jauna. Gerlako kolpatu haundia, makilekin dabil. Ez da xori buru bat, hiruetan salbatua du Frantzia, hiruetan segirik. Badu, paponaren bete medela...

AITA Eta, gure bordaren ikusterat istorri beharra da ?

AUZAPEZA Bai pentsa. Hemen dut haren azken letra, begira zazue... "Je compte sur vous, très cher ami et vous garantis que je paierais comptant pour l'achat d'une borda en Pays Basque la somme de : cinq millions d'anciens francs."

AMA Bortz miliun ?

AUZAPEZA Ez da dudarik, zef uste duzu ? Zuen tronpatzerat istorria naizela ?

AITA Bortz miliun, borda zahar batzen, ezin one-sia da.

AUZAPEZA Bai jauna, bortz miliun ukitetako aski ditut zuen bien sinadurak. Baleki bale : atzo, notariarekin baxkaldu bainaiz, aipatu diot, izenik e-ran gabe bixtan da, aipatu diot beraz gure afera eta paper hau eman daut. Lehen bai lehen siuntu behar zinuke eta gero gauzak biziki errexki eginen ditugu. Zuen sinadura eman nahi balin baduzue hementxe...

AMA Neren, segidan izanen duzu.

AUZAPEZA Eta zurea ?

AITA Neren ere bai, guretzat bortz miliunek balio ahal dute lau murru zahar horiek baino gehiago.

AMA Hola bederen abantaila hartuko dugu beharba, bertzenaz luza gabe, bortxatuak gintazke lur pozi batzuen saltzerat, gure zorren pagatzeko.

AITA Ez da ez, gure etxeen zor haundirik baina hola etxe aintzindei hau berrituz "gita" bat edo bi egiten shalko ditugu.

AUZAPEZA Arrazoin duzu, hortan da etxalde ttipien geron.

AMA Nik segurik lehen lehenik hormatzeko bat eros nezake.

AITA Eta nik borda berri bat egin baneza ?

AMA Bai eta horiek denak baino lehenago ikustegi bat. Gure etxeen, barkatu jaun mera baina, ez da kabinetarik ere.

AUZAPEZA Hortan ez da zuen hutsa , orain arte ez zinuten urik...

AITA Eta sosa noiz hunkiko dugu ?

AUZAPEZA Laster, bertze hilabetearen hastetik.

AMA Eta hori, zuri esker jaun mera. Atsegina ginuke gurekin bazkal bazinile.

AUZAPEZA Bertze aldi batez, egun ez dut astirik.

AITA Zaude gurekin jaun mera, laster bazkalduko gira.

AUZAPEZA Bertze aldi bates bai, egun ez, bi orenetako Baionan izan behar dut.

AITA Eta gure bordaren saltzapenak, zer gostako dira, paper sariak eta...

AUZAPEZA Hahi baduzue, notariarekin nihaurek eginen ditut behar diren paperreria guziak.

AMA Milesker, jauna, milesker.

AUZAPEZA Ez da zeren...

AMA Zure gatik bortz miliun hunkiko ditugu eta... Zuri ere, zerbeit eman behar ginuke ez ?

AUZAPEZA Bo... Ez dut ez dirua gatik egiten... Zueri zerbitzu egiteko ari naiz.

AITA Holako zerbitzuak, jaun mera, kario pagatzen dira... Kario.

AUZAPEZA Egia. Holako saltze batzu izaiten direlarik, batzuek kapitalaren hanarra hartzen dute... Baina gure kasuan, bortz miliunen hamarra : bortz ehun mila heldu litake... Hori, biziki sobera zaut... Ez naiz makinun bat.

AITA Eman beharra, gogotik emanen dautzugu gero.

AUZAPEZA Bo... Berrehun bat milako hori aski zaut...

AMA (Bere senarrari) Ez dakit zer pensatzen duzun zuk, baina nik, berrehun mila tierdi eman nezaiozke. Ongi zaitzu jaun mera ?

AUZAPEZA Neri bai... Hobe digu denek arrazoinean artzea, hola gausak beti ongi iragaiten dira.

AMA Ongi mintzo zira jaun mera... Huntarik azken xorta bat ?

AUZAPEZA Ez, milesker, joan behar dut, orena bere bidean baiton. Agur adixkideak, egizue bazkari.

AMA Milesker, jaun mera, gisa bera.

AITA (Auzapeza joaki da) Gure borda.

AITA-AMA

AMA Bortz miliun.

AITA Batzuen eskaña bertze batzuek soberakin.
(Pausa)

AMA Baina, zer ari gira ? Zer egin dugu ?

AITA Zer duzu ?

AMA Jakes ?...

AITA Gure semea.

AMA Eta gure borda. Barkazak, Jakes, ez nuk hitaz orroitu ere.

AITA Orain ez dezakegu bertzerik egin : biek sinatua dugu.

AMA Jaun meraren harrapatzerat joaki naiz segidun.
(Eta kanpora abiatzen da)

AITA Ez du balio orai berantegi da

AMA Berantegi, berantegi... Eta zu ere ez zira
oroitu, haren letra goiz hantan ukana eta ?

AITA Onotu bai, bainam...

AMA Zer baina ?

AITA Jaun merarekia ^{fakoa} egitea gatik...

AMA Zer da etxeko seme bat baino lehenago jaun mera ?

AITA Ez du balio bururik berozten, berdin ez dezakegu
deus knobia. Gertatuak gertatu, orain hola da.

AMA Bai eta orain zer behar diogu igorri gure semeari

AITA Ez dakit.

AMA Ez dakit, nik ere ez dakit.

AITA Aski diozu izkiriatzea, bortz miliun horiek
gogoan, ez girela hartaz oroitu ere.

AMA Aski diozu zuk egitea, nik ez dut horren
ezartzeko bihotzik.

AITA Nola behar diot ezarri, eskuaraz ala frantsesez ?

AMA Frantsesez hobe. Frantsesez ari girelarik,
iduri bailuke ez girela gehiago gu mintzo.
Baina nik ez dut ikusii nahi ere zer ezartzen
duzun. (Joaki da)

AITA (Bere buruarekin) Ai, bizi hau. Bizi hau
debrukeri bat da. Semea maite, jaun meraren
beharra ere ba, hauxe da bida komedia...

AITA-SEMEA

SEMEA (Sartzen da) Joan da azkenian herriko errege
haundi maundi hori ?

AITA Bai. Bi orenetako Baionara joan behar dik. Eta
hi, nun hintzan orain arte ?

SEMEA Kristine eta Maritxurekin.

AITA Ez diat galdegin norekin, baina nun hintzan ?

SEMEA Ganberan.

AITA Zer ari ganberan ?

SEMEA Soinu entzuten.

AITA Soinua aski balitz bizitzeko.

SEMEA Zer da ?

AIFA Zer den ? Gure zerresei zola beti berdin zikina.

SEMEA Garbituko dut nita.

AIFA Ez duk aski erraiten, egin ere beharrik eta segidan.

SEMEA Oui, mon commandant.

OIHALA

GURE BORDABIGARDEEN ZAFIAAMA-ALABA.

AMA Igande ~~aña~~ astelehen, gure etxearen beti berdin eta beti norbeit, Kristine ez bada, Jakobe...

ALABA Eta gero, zerda ?

AMA Eta gero zer den ? Jan aintzineko bodoila beti hutsa, beti norbeit guri denbora gal arazteko eta gauaz berantean argi erretzen ari, sukaldetan ez bada ganberan.

ALABA Gure sukaldetan, biziki argi gutti erretzen da.

AMA Eta hire ganberan, zonbat gau pasatu ditu Gabriel-ek ?

ALABA Gau osorik selulan, gauaren erdia, ez dakit, bi edo hiruetan.

AMA Mutiko bat eta neska bai eskondu gabe ere ganbera batean.

ALABA Eskondala ote da gizon-gei batekin ?

AMA Eta orain nun da gizon-geia ? Hitaz ongi baliatu eta bertze baten enganatzerat joana.

ALABA Eta gero zer da ?

AMA Eta gero zer den ? Nahi dun mazelako bat ?

ALABA Ez ana, Konfirmatus naiz.

AMA Konfirmatus bai, eta gainerat Komunione haundiko egunean eskun luzatuz errana : "U~~tu~~ egiten dut debruari."

ALABA Bai ana, hamabi urtetan aise da uko egiten debruari, baina gero...

AMA Eta gero : ezkondu gabe ere elgarretaz aseak.

ALABA Ezkondu ondoan elgarrez aseetzen baino hobea.

AMA Eta orain, Gabriel nun da ?

ALABA Ahantzazu otoi Gabriel. . Gaurkoak, Pantxo du izena.

- AMA Pantxo ala Luxien, berdin zaitan, baina ez dinat onartzan, hemendik aintzina gure etxeen, mutikorik sar dadien.
- ALABA Ez du balio hortako oihuka hastea.
- AMA Sofritzen dinet neska.
- ALABA Sofriarazten ere bai, hogoi urtetan ez ahal naiz gehiago haur bat?
- AMA Agian ez, baina ez nikenean nere alaba batek gure familian desohorerik eman dezan.
- ALABA Hortan ez da eskapatzerik, oraiko neskak gisa guzietarat desohoragarriak gira : esperantxetan denari lau begirekin begiratzen dute, eta luziaz ibilki balinbagira mutikoekin orduan erranen dute asko moldez, haur galtzen badakigula.
- AMA Bai, baina mutikoekin ibiltzetik ibiltzerat badun gauetik egunerat bezenbat bide.
- ALABA Alabaina, nik eguna baino nahiko dut gaua.
- AMA Segi, segi hola hola : gero izanen dun gero gain hartan nigar eta hortz karraska.
- ALABA Zer uste duzu, hortzak ere bentze mundurat eremanen ditugula?
- AMA Badakina zer erraiten dunan?
- ALABA Zer erraiten dutan ez beharba, baina zer egiten dutan bai.
- AMA Zer egiten dun?
- ALABA Zer zira ere apazaren gisa nere kofesatzen hasia? Hari ere ez erraiten eta uste baduzu zuri erranen dutala.
- AMA Zonbat denbora du ez haizela kofesatu?
- ALABA Ez dakit batera.
- AMA Segur baduela bi hilabete segurik.
- ALABA Bi hilabete? Azken kofesioa iragan eguberrieta, regina dut.
- AMA Zer? Zortzi hilabete ez haizela kofesatua?
- ALABA Zaude apalago, norbeit bada (Ama joaki da) Ez hintzan sartzen ahal, ateagian jo gabe?

ALABA-SEMEA

- SEMEA Gora gora mintzo zinezten eta ez bainuen zuek uste gabean etorri nahi...
- ALABA Zer hintzan gure barrandan ?
- SEMEA A, hori ez, ni soldadoa nun eta ez bertze ienden zeintzale horietarik.
- ALABA Joinden astean, baduk horietarik bat gure etxeen izana alegia eta galtzerdi saltzailea. Huni begira, hari begira, hau galda, hori konda, oren bat etordi egon duk.
- SEMEA Zonbat galtzerdi pare erosi dazken ?
- ALABA · Bihirik. Nor zen ez jakinarena egin diat, mintzatu niok denboraz eta dantzaz.
- SEMEA Egia erran berriki arte nik ere ez nakinan, hola, bazirela gordezkako presuna batzu gure zeintzeko pagatuak.
- ALABA Eta gainerat guhaurek pagatzen ditugunak ororen buru, eta horri nor da ohartzen ?
- SEMEA Barreatzen ahal bagine gordezkako ala ageritkoek zeintzen ahalko ez gaituzten heinean...
- ALABA Horiek hola, Ramuntxo, hi mutikon baihiz, zer pentsatzen duk neskotaz ?
- SEMEA Itxura seriosa duena iduritzan zautan emazte mokor bat izauen dela eta nise irri egiten duena aldiz segur nun ez dela serora joanen, baina Fanfarin bat ote den ?
- ALABA On duk jakitea.
- SEMEA Eta hik, zer din mutikoetaz ?
- ALABA A, hori, gaur erranen deat ilargi xuritarat.
- SEMEA Nik orain nahi dinac jakin.
- ALABA Ez bahintz nere anai...
- SEMEA Ez hintzan nere arreba izanen...
- ALABA Erradak otoi egia, behin ere fiaan haiz neska baten etxeen ?
- SEMEA Zendako galdatzen dautan holakorik ?
- ALABA Gero erranen deat.

- SEMEA Neska baten etxean izan naizenez, bai, aldi bat baino gehingo eta neska baten etxeen baino barnagò.
- ALABA Egunaz ala gauaz ?
- SEMEA Gauaz, gauaz. Egunaz...emeki.
- ALABA Eta zer hinduen, gauaz, neska baten etxeen izanki eta, gehienik arranguratzan ?
- SEMEA Zakurrek, marrumaz hasi eta ez baitziren ixiltzen denak iratzar arazi arte.
- ALABA Gaixo zuek. Ez dakik zer egin behar den gauaz zakurren ixil arazteko ?
- SEMEA Hik, zer egiten dun ?
- ALABA Bota ogi poxi bat'edo Iwinkika mutur bat.
- SEMEA Gogoratzea ere gehiago dun.
- ALABA Ramuntxo.
- SEMEA Zer dun Maritxu ?
- ALABA Ahalge nauk erraiteko.
- SEMEA Mintza hadi gostuan, ez ote naiz hire anaia ?
- ALABA Nahiago niket ez bahintz hala.
- SEMEA Zendako mintzo haiz hola ?
- ALABA Anain bat baino gehingo, nahi baihinduzket maitatu. (Elgar besarkatzen dute)
- SEMEA Zer naiz hormatua, ala erakitua ?
- ALABA Ez nian holakorik igurikatzen...
- SEMEA Zer dun nigarrez ?
- ALABA Ez dakiat nihaurek ere.
- SEMEA Zer gertatzen da, lur ikara hurbil ?
- ALABA Lur ikara pasatzen duk, jende ikaranez..
- SEMEA Zer dun hola etsitzeko ?
- ALABA Gabriel ekin hoinbeste lan egin ondoan, pentsatzen nian gure tarteko adiskidantzatza urrunago joaren zela. Baino joan den egunean, ez hari sobera pentsatzeko, erran daitak.
- SEMEA Zendako ?

- ALABA Ez dakiat .
- SEMEA Norbeitek zerbeit nahaskeria egin ote du ?
- ALABA Ez dakiat, Berdin bai... .
- SEMEA Berari ez dion deus galdegin ?
- ALABA Bai, erran dioiat nitaz bertze bat nahiago zuenetz, ez mintzanez gei harekilako ?
- SEMEA Zer ihardetsi daun ?
- ALABA Ez dela deus holakorik.
- SEMEA Zer erran dion bertzerik ?
- ALABA Ez ote zuten etxekoek nerekin ezkontzerat utzi nahi ?
- SEMEA Eta ?
- ALABA Hori baizik ez balitz etxekoek nahi ala ez nerekin ezkont litakela.
- SEMEA Eta hik ?
- ALABA Bertze neska batetkin ezkontzerat bortxatua denetz ?
- SEMEA Erna hadi neska... Erran, dena den...
- ALABA Ez otoi, deus galdatzeko, berdin, egia osoa ez dutala sekulan jakinen.
- SEMEA Zendako ez ?
- ALABA Ba omen baitira gauza batzu sekulan nehori erraiten ahal ez direnak.
- SEMEA Ez din segur balio hortako lola trixtatzea, dione bat galtzea, hamar biltzea dela.
- ALABA Hamar banintian orain arte, baina Gabriel bezalako bihirik.

(Kriztine agertuz)

ALABA-RAMUNTXO-KRIZTINE

KRIZTINE Komisione egiterakoan, agurno bat egiten dautzuet. Ongi sartu zinezten ?

ALABA Arnas ongi.

KRIZTINE Eta hi Ramuntxo ?

RAMUNTXO Nahi baino goizago.

KRIZTINE Josette gustukoa zauk naski...

RAMUNTXO Bo... Gau batentzat...

KRIZTINE Sarri, heldu rirezte plazara ?

ALABA Duda dun ? Herriko bestak izanki eta...

KRIZTINE Eta hi Ramuntxo ?

RAMUNTXO Bai. Hain segur... Baina lehenik, galtzeko
botoin bat josteko badinat.

KRIZTINE Maritxu-k lagunduko hau. Agur. Sarri arte...
Presa baitut...

(Ramuntxo bera, botoinaren josten hasten da)

ALABA-SEMEA

SEMEA Zer dun irriz ?

ALABA Galtzetako botoi bat josteko...

SEMEA Eta gero zer da ?

ALABA Nuniikasia duk josten ?

SEMEA Botoin baten josten ikasteko ez ahal diun
univerzitaterat joaite beharrik.

ALABA Halera dendarigon emazte eskua nagusi.

SEMEA Ditaririk gabe, batere ez dakinat.

ALABA Nola artzen haiz ditaririk gabe ?

SEMEA Ahal bezala. Batzueta orratza oihalian
sartzeko orde, errian sartzen no...

ALABA Gaizo mutikoa. (Eta josten hasten da).

SEMEA Bai eta gaixo erria. Zer debru, nihundik
ez dinat orratza harian sartzen ahal.

ALABA Sar-zak beraz haria orratzian.

SEMEA Orai korapiloa egiten ahal badut debruak ere
ez din barreatzen ahalko.

ALABA Erna hadi mutikoa, nihairek bietan egina
ukanen nian.

SEMEA Goazen emeki eta segurki, amodiota bezala
plazerrari iraun arazteko. Bertzenaz aitak,
igande goiza izanik ere, zerritei garbit-
zerat igorriko bainu berdin.

ALABA Hi ere, nere gisa, lan eginarekin ados haiz naski?

SEMEA • Bai bereziki egun, zerritei garbitrea-rekin, nahi bezain ongi ikuzi eta ere neskek gaur neri zerri usainoa senti bailezakete.

(Norbeitek atean jotzen du)

ALABA (Bere baitan) Nor ditake? Pobren nausia aberatsa ala aberatsen mutil pobrea?

SEMEA Sartu, sartu gostuan.

ALABA-SEMEA-DOMINGO

DOMINGO (SARTZEN DA) Zer ari haiz mutikoa?

SEMEA Ez duk ikusten?

DOMINGO Neska bat begira eta mutiko bat josten ari, holakorik, sekulan oraino ez diat ikusi.

SEMEA Ez dituk gauza guziak ikusiak oraino, lisatzen arras trebatua nuk.

ALABA Io, sekulan ezkontzen bainaiz, hiru emazteek suertea izanen dikt.

DOMINGO Jainkoaz, ez zakokala erran josten eta lisatzen badakikala bertzenaz, igandetan ez haiz pilotu partida baten ikusterat ere joaiten ahalko.

ALABA Aurtengo herriko bestek, itxura poxi bat baditek?

DOMINGO Bai. Laster entzunen dugu jan-aintzineko soinua.

SEMEA Aratsaldenn, nor dira pilotariak?

DOMINGO Ez duk pilotu partidarik, eskual dantzari multzo bat duk lehenik.

ALABA Eta gero dantza nahikoa?

DOMINGO Alabaina, zangoen berotzekeo.

ALABA Soinularrink nor dira?

SEMEA Ez huen horren galdatze beharrik. Inglesez kantatzen duten hoietarik dudarik gabe, dena oihu eta garrasi.

DOMINGO Gabriel-ek utzi nahiko zaitu nerekin dantzan artzerat?

dos
ea-
re
ausi
?

ten
iat
o,
eta
detan
rat
i bat
ineko
ntzari
nglesez
abe,
n dantzan

- ALABA Haren baimena segura dukezu, ez da jeloskorra.
- DOMINGO Eta zure baimena izanen dut?
- ALABA A, hori, gero ikusiko, zer dantzaz den...
- DOMINGO Izerdirik gnbeko horietarik, emeki, emeki.
- SEMEA Eskual dantzari multzo bat lehenik.
- DOMINGO Arrotzengatik ez duk ongi?
- SEMEA Iduritzan zaitak, udan, plaza erdian eskual gazte multzo bat delarik dantzari horien saltzaleak eta erosleak, hor direla inguruau, feirietaen traculantzak abererri begira egoiten diren bezala.

ALABA-RAMUN EXO-DOMINGO-AMA

- AMA (Sartzen da) Hemengo aldi Domingo?
- DOMINGO Naski bai, eske etorria naiz. (Alaba joaki da)
- AMA Hori bera pentsatzen nian.
- SEMEA Ohaientza: azken ofiziora duk eta haren ainzinekoen edozein moldez eta nun nahi: eskearen egiten.
- AMA Bainakien aste hunton ibili beharrak zineztela, bazterturik czarriak nintian hamar mila libera. Huna.
- SEMEA Bainamana; zer dituzu hamar mila libera emaiten?
- AMA Urtean aldi bat duk eske hori.
- SEMEA Urtean aldi bat diren gauza horiek ote ez ote dira sininduen bestak bezala egun guziez etortzen?
- DOMINGO Bainamana, ostasuek ere ez dute denek hamarnna mila liberarik emaiten.
- SEMEA Ostasuek baizik nehork ez likek eske hortan dirurrak eman behar. Zeren, bestak direla eta, zer sosak ez dituzte biltzen jauntxo horiek? Bestak, gaiztoentzat direla sinets arazten dute, baina nor da hor irabazle? Ostalerrak, ostalerrak bakarrik... Eta, gaiztarrik bildu dirua ez ditek gero, gazteriarentzat uzten... Zoinek ezar lezazke bost ehun mila libera zahar lantegi berri baten muntatzeko? Nehork edo gutik. Hitaz eta nitaz baliatzen dituk, gure galtzeko.

- AMA Bainaz zero dera sazu e Ostalerrak, bestak, lantegiak... Nik, hamar mila libera baztertuak nintan, apezaren dako...
- DOMINGO A. Zuk uste zinuen kermezarentzat ibilki nintzela.
- AMA ... Alabaina, irigan igandean, apezak errana predikutik gazte batzu pasatuko zirela gure etxetan; ez zituen otoi nihun geizki errezebituak izan...
- DOMINGO Ni, herriko bestentzat nabilo eske. Iduritzan baitzaugu etxe bakotxean nahi dutena emanez eske huntasen eta gero urteko besta guzietan sartzen kitorik ukanez, hobekiago heltzen direla, eñinez eta kanpotiarrek bezala aldi guziz eta bakotxak ~~lau~~ ²⁰ chun libera sartzen pagatzuz.
- AMA Ez baitute gaztek murtuko kontua pagatzen?
- DOMINGO Aurten ez dute egite beharrik izanen.
- AMA Zendako ez?
- DOMINGO Zeren kontua mutikoek bakarrik pagatzetan dute eta ez da zuzen nola Aire lekunn, zappi anaia bait dira, urtean zazpi mila mibera paga dezaten eta Lorrondoan aldiz, bestak urririk, seiak neskak direlakoan.
- AMA Eta gu bezalakoek zer emaiten dute?
- DOMINGO Bakotxak bere shalaren arabera.
- SEMEA Eta batzuek berdin gehiago, bertzeak baino gutiago ez izaneko.
- AMA Bertzek nola eman dute?
- DOMINGO Bada denetarik, ^{2, 4, 5} mila, baina badira ere ¹⁵ mila liberakoak eta ²⁰ bortz chun liberakoak ere, baina.
- SEMEA Attinekoak eta Titteliteikoak segurraz ere?
- DOMINGO Ikusi duk barda Titteliteiko Jacqueline nola ^{BRIGITTE} beztizan?
- SEMEA Nola buluzia zen erran bahu bederen.
- AMA Zer zuen zaia labur horietarik?
- DOMINGO Itsasoan bezala: xortak soinean.
- SEMEA Gorphutz ederra balu bederen. Habe luke orainko zai luze horietarik erosten bere zango makila txarren gordetzeko.
- AMA Eta ~~Giloteneko~~ nagusi haundiak zonbat eman du?
- Murtxoloko*

- DOMINGO Ori, nunbeit han, omaiko prezio, oilo eder baten saria. : mila libera.
- AMA Mila libera bakarrik, ez duk ahalge ere. ?
- DOMINGO Ez da bakarra. Herriko hiru etxalde haundi-nek bedera mila libera eman dute.
- SEMEA Jaunregion ere ?
- DOMINGO Bai, Jauregiann, ~~Mugikoloan~~, ~~Oñatioren~~ eta Okilobordan. ~~Okilo koek~~
- AMA ~~Okilo koek~~ ere mila libera baizik ez ?
- DOMINGO Ez anderena eta haren bi etxetiarrek, batek hiru mila libera eta bertzeak biga.
- AMA Eta guk, zonbat eman behar dugu ?
- SEMEA Nik segurik, ses bat bera ez nezake eman, ama.
- DOMINGO Zendako ez ?
- SEMEA Auzo herrietan ere sobera izanki eta ez baita neretzat besta beharrik herrian.
- DOMINGO Aise, iduri litek gibelatuenetarik haizela besta eggteko, ez ahal haiz ongi baliatzen hiaur ?
- SEMEA Ongi baliatzen, nor da herriko bestez ongi baliatzen ? Eta gero zer estiru dute ostaler horiek guretzat ? Lehenik gu mokor-araz, eta aski diru utzi dugunean gero, har eta kanpoan ezar, atea hetsiz, .
- AMA Ixil hadi seme, orain behar dinguk... .
- SEMEA Ez ama, ez naiz ixilduko. Nola mintzatzen dura gutaz zimino horiek ?
- DOMINGO Hori hala duk, zerbeitz egiten duena geizki ikusia duk eta deus egiten ez duena zozo batehtzat hartun.
- AMA Ez baigira gu ere aberastetarik, bi mila libera emanen ditiat halere.
- DOMINGO Milesker anderan.
- AMA Ricard-no bat hartuko duzu elgarrekin ?
- DOMINGO Berdin; ostatuun urririk ukain ditudanek ez naute burtxoratu...
- SEMEA Horrek nik erronazten.
- DOMINGO Zendako ?

- SEMEA Zendako ? Dela herriko besta, dela kermeza
edo nik dakita zer, beti herriko dirudunen
esku makil eta zerbitzari oker batzu bai-
zik ez baigira.
- AMA (Edaterat emanez) Ez haizela harri Domingo,
Ramuntxoek ez ditik gauzak guk bezala ikusten.
- SEMEA Alabaina, gauza bera adinean joanago eta
desberdinago ikusten da, jakitatearen arabera... .
- AMA Hobe Huke hik ere guk bezala jakingabea
gelditzan. (Ama joaki da)

SEMEA-DOMINGO

- SEMEA Gaixo ama, hola bederen ez nintio ikus,
zorriak bezala, bizi direnen gainean bizi
direnak.
- DOMINGO Artzainak, ardieri ez dik, zorrien kontra-
ko erremediarik emaiten ?
- SEMEA Artzainak berak zorri bilakatzen dirolarik ez.
- DOMINGO Garbiki mintzo haiz.
- SEMEA Ni ez nauk ostalera bezala bi eskualde
dicuen gixona.
- DOMINGO Ramuntxo orainoa, joan behar dint.
- SEMEA Ago apur bat...
- DOMINGO Eta, zonbat egun oraino Frantziaren zerbitzuko ?
- SEMEA Ez nuk oraino kondatzén hasia.
- DOMINGO Hobe, kondatuz luzeago omen duk. Ongi zirez-
te han ?
- SEMEA Bai mutikoa. Hobekingo ezin izan. Beron
haurrek bezala artatzen gaitiztek...
- DOMINGO Orainoa hanoak. Tuturruteirat eta goré
heldu haiz dantz jaunzien eta fandangoen
emaiterat, jan-antzin ?
- SEMEA Berdin bai, ideien pixka bat freskatzea.
baizik ez bada ere.
- DOMINGO Zeren duk etor, bertzenaz... (Jonki da)
- SEMEA Baietz mutikoa etorriko naizela.

(Orduan berean, plazan soinua hasten da
eta eztiz eztia mutxikoen airea segi ditake)

SEMEA-AITA

- AITA (SARTZEN DA) Nork zikindu du baso hori ?
 SEMEA Nik aita.
- AITA Eta bigarren hau nork erabili du ?
 SEMEA Domingo antxuburukoak ?
- AITA Zer nahi zuen harenk berriz ?
 SEMEA Eske zabilan.
- AITA Kermezarendako ?
 SEMEA Ez, herriko bestentzat.
- AITA Nun da Maritxu ?
 SEMEA Plaza-ra buruz joana da nik uste.
- AITA Orain nahi nikel jakin egia...
 SEMEA Zer egin ?
- AITA Barda mezan izan zireztenez.
 SEMEA Bai aita, barda mezan izan gira.
- AITA Eta gero dantzatzen ?
 SEMEA Hortakotz joanak ginen bardako mezarat, dantzatzetik berant sarturik ere, egun goizean ohean egoiten ahalko ginelakoan.
- AITA Ederki, ederki, otoitzta eta dantza biak nahastika...
 SEMEA Besta berri, otabeten bezala.
- AITA Ez duk berdin sene.
 SEMEA Eskeko uztziarentzat segurik ez.
- AITA Barda, ez zirezte mezan izan.
 SEMEA Bai aita, mezan izan gira.
- AITA Eñ ere horrenintzian eta ez hun nihun ikusi.
 SEMEA Zoin lokutzen zinen ?
- AITA Beti bezala gaineko galerian eta hi ?
 SEMEA O, ni, behereko galerian.
- AITA Sekulan ez eta zendako hintzan, barda, behereko galerian ?
 SEMEA Elizatik lasterrago ateratzeko aita.

- | | | |
|-------|---|-------|
| AITA | Nik hi ez ikusten paso, baina nolaz ditake hik ez bainuk ni ikusi ? | JAKES |
| SEMEA | O, ni ez bainiz beti jenderi begira egoiten, batzu bezala, ikusteko nor den han rta nor ez. | SEMEA |
| AITA | Barda ez hintzan mezan. (Semenk ez du arrasposturik emaiten) Zer behar dute erran herritarrek ? | JAKES |
| SEMEA | Zer zira zu, herritarrek zer erranen dutenaren beldurrez ibikki ? | SEMEA |
| AITA | Zer haiz hi bertzeak ez bezalnkon ? | JAKES |
| SEMEA | Badira asko bertzek bezala egiten gatik ibilki direnak. | SEMEA |
| AITA | Zendako ez haiz barda mezan izan ? | JAKES |
| SEMEA | Nork erran dautzu ez naizela izan ? | JAKES |
| AITA | Errak beraz, Jaun Erretorak, zeren gainean egin duen predikua. | JAKES |
| SEMEA | Jesukrixtoren gainean. | SEMEA |
| AITA | Eta hik zer diok Jesu-Kripto ? | JAKES |
| SEMEA | Balitakela hartaz ere hntzerki bat ederraren egitekon. | SEMEA |
| AITA | Zer arizan behar dukt orain ? | JAKES |
| SEMEA | Nere zapetak dirdiratzekoak ditut oraino. | SEMEA |
| AITA | Alabaina barda elizako bidean zikindunk. | JAKES |
| SEMEA | Zure elizarekin. Zer liturki barda mezan ez izanik ere ? | SEMEA |
| AITA | Zer erran nahi luke orgi, ez haizela izan ? | JAKES |
| SEMEA | Ori, danu da ez baitzinen iandarria egin, galonak laster bilduko zinituen. | SEMEA |
| AITA | Zendako ez haiz mezan ibiltzen ? | JAKES |
| SEMEA | Mezan ibil edo ez, bakotxak bere hautua egiten du, ez ote gira libro ? | SEMEA |
| AITA | Ama nun da ? | JAKES |
| SEMEA | (Zapeta dirdiratzen ari da) Subordan edo hor gaindi. | SEMEA |
| AITA | Bazkarri denboran berriz nipa tuko dia guk amarekin eta Maritxurekin bardako mezako historio hori... | JAKES |
| SEMEA | Herriko besta-kari, zer bazkari goxoan egin behar dugun. (Aita joaki da) Etxetik urrun etxeen gogoan; etxeen naizelarik, beste nunbeit izaiten hibea... | SEMEA |

Sekulan ez gira zoriontsu izaiten ahal. (Sortzen da Jakes, Parisen den semen)

SEMEA-JAKES

- JAKES Bakarrik ?
- SEMEA Jakes. Aspaldikoa, nundik heldu haiz ?
- JAKES Parisetik, Ramuntxo, Parisetik.
- SEMEA Xantza duk.
- JAKES Zendako dut xantza ?
- SEMEA Hobe baita, Parisen, nehor ezagutzen ez den tokian bizitzen, hemen denek ezagutzen gaituzten lekuetan baino.
- JAKES Ramuntxo, ez holakorik erran.
- SEMEA Zer diotan badakint etn jakin bahar duk, soldadogoa burruatu bezain lester, nik ere, lekuak hustuko ditudala hemendik.
- JAKES Zendako ?
- SEMEA Hemengo iendek ez ditek jikitate izpirik ttipikeriaz eta lohikeriaz bertze, ez ditek deus ezagutzen.
- JAKES Hori badakiat.
- SEMEA Nola, nahi duk harrapa dezadan neska bat nerekin ezkondu nañiko duena heren bizitzeko ikusiz zazpi hauride eta ttipienak oraino bortz urte bakarrik, aita-amak gazte...
- JAKES Zer egino du ?
- SEMEA Hik bezala, lekuak hustu, noraipeit, Pariserat edo ahal dutan lekurat.
- JAKES Nik ere hala egin nian, eskuko xoria airekoaren mencuran utzik.
- SEMEA Zer zauk, dolatu ?
- JAKES Bai. Ramuntxo, aldi bat baino gehiagotan.
- SEMEA Berdin dik, nik ez diat patitzen ahal hemengo jenden izpiritu bihurria.
- JAKES Zer uste duk niseago eginen dukala bertze nunbeitekona ?
- SEMEA Nik hautua egina diat : lekuak hustuko ditint.

JAKES Nik ere atzo, sort herris utzi nian hirirat
jaiiteko.
SEMEA Eta egun, zer nahi luke berriz hirirat itzuli
J
JAKES Bai, ahal bainu gogotik.

SEMEA-JAKES-AITA

AITA (Sartzen da) Jakes. Zer da, ~~ogia ala~~ amentsa ?
J
JAKES Egia aita, egia osoa.
J
AITA Zer uste gabeko arsegina.
AI
JAKES Nereczat ere uste gabekon da ~~nira~~.
J
SEMEA Ez gaituzkon abertitzen ahal ?
J
JAKES Lipus tapastean partitura nauk... Atzo
goizean, nagusiarekin samurtu nauk eta segi-
dan lekuak hustu ditint, hiri ~~modariktu~~
harrik.
AI
SEMEA Zer gatik samurtu zirezte ?
J
JAKES Ago otoi, ez siki balio aipatzen era.
J
AITA Joaki nauk amaren bila.
AI
JAKES Hi ere, zer haiz permisionez ?
J
SEMEA Bai. Joan den larunbatean etorrin nauk.
J
JAKES Nere letraz, ait'amek zerbeit ~~erran~~ daukiae..
AI
SEMEA Ni hemen sartzean, ukal berrin zizan...
Baina ez diaiguk luzaz aipatu, norbeit bazian.
Ago... Ez nauk oroitzen nor ~~zera~~... Nor ote
zen ?
J
JAKES Ez nauk gogoratzan ?
J
SEMEA A, bai, gure Jaun Mera.
J
JAKES Zertan zabilan gure etxean ?
J
SEMEA Aita hasia duk pentsonia edo ~~arranda~~ edo ez
dakiat zerbeit paperen egiten.
J

SEMEA-JAKES-AITA-AMA

AMA (Sartzen da) Gure Jakes. Nola haiz ?
J
JAKES Osasuna badut.
J
AITA Hori duk bederen.

- hirirat JAKES Zuek ere denak ongi dudarik gabe, nun dira Maritxu eta bertzeak ?
- rat itzuli SEMEA Joaki naiz heien bila, nik badakit nun diren, herriko plazan dituzke. Ez ahal dute guti harritu behar jakitearekin Jakes dugula hemen (Joaki da, kanpoko atea zabaltzean beti bezala berriz ere entzuten da herritik soinua)
- arentsa ?
- JAKES-AITA-AMA
- zo
ma segi-
katu
- uk.
- daukaie..
- m...
It basian.
Nor ote
- edo ez
- ?
- JAKES Zer da soinu hori ?
- AITA Herriko bestak Jakes, herriko bestak : egun, bihar eta etzi.
- JAKES (Bere baitan) Zorbat gaztek eremaiten dute berekin Eskual Herritik urrun fandango aire eder hori ?
- AMA Batean xahkoaren besta, bertzean biper besta, laster lukainka besta, beti zerbeit batzuk gure herrian.
- JAKES Luza gabe egiten ahal dituzte kuia bestak ere. Alabaina, lanik ez den lekuari bota dantza, lantegien orde dantzategiak eginez.
- AMA (Jan aintzinako eskainiz) Herriko besten ohoretan.
- JAKES Xintxin.
- AITA Aurten ere behar dugu lehengo dantza zaharretarik eman gunbiek.
- AMA Bai nise, zer panpirinak gu gazte horien erdian.
- JAKES Joanden gauean, aments izigarri bat egin dut.
- AITA Zer aments ?
- JAKES Ez dakit nik uste zeroan ibili naiz.
- AMA Zer ikusi duk amentsetarik ?
- JAKES Ilargia eztiaaren kolore nerri begira, izarrak dantza uraren gainean, igelen kantuak entzuten eta sorropila bat hunkitzen nuen ez baita Parise guzian haren goxotasuna eta usain one duen neska bihirik. Zer bozkario ezin erranezkoa : mendiak, ixilik, elgarri musuka lotuak zauden, haize hegoak perekatzetan ninduen onddoketaria iratzeek bezala. Pentzeak perde ziren eta bazen maluruen usain gozo bat erramu hostoenarekin nahastekatua iduri Urtxoak airean joaki ehunka eta zamp.

- AITA Zer, ihiztariak ?
- JAKES Ez aita, iratzartu naiz, beti bezala, Parisen, arrabotsaren eta errautsaren erdian tenoren arrangura eta nagusien beñdurrean.
- AMA Gaixo Jakes, ni ez nuk behin ere izan Parisen.
- JAKES Beharrik ama, zoriontsuago zira hemen.
- AITA Beti zerbeit baduk eta denetan; hori gauza segurra.
- AMA Gure herrian ere aurten baduk sekulan baino gehiago udatiar.
- JAKES Hameka hilabete, kearen erdian lasterka, murru eta ferlanken artean iragan ondoan segur irabazia dute hilabete batez bederen hemengo aira sanoan deskantsuan hatsa hartzea.
- AITA Gure eskualdea luza gabe pauza leku ekarria izanen omen da.
- JAKES Orain arte zer da ? Herrian ez da gehiago haurrik, xaharrik eta arrotzik baizik.
- AMA Gaineko ostattuan ere aurten hamar ganbera berri gehiago egin ditizket.
- JAKES Alabaina, hemengo etxeko jaun eta ostalerreri sinets arazia dute "turixmoa" nski dultela bizitzeko. Bain, irriz nago, irriz.
- AITA Zendako ?
- JAKES Zeren hori iretsarazia diotenak berak ari dira horien itotzen, beren "Super Marché" horiekkin.
- AITA Arrazoina duk, Jakes, horrek badik itxura.
- JAKES Horiek hola, nere letra ukana duzue ?
- AMA Bai seme bai, baina ez diaguk oraino erantzunik egin.
- JAKES Orain, ez duzue egite beharrik ere izanen.
- AITA (Edaterat emanez) Orain nik emanik ?
- JAKES Berdin. Oroitzan naiz, joanden urtean zoin goxoki hartu nuen hilabete bat pauza nere etxearen.
- AITA Aurten eta gerò ere etortzen ahal haiz gostuan.
- JAKES Ez da berdin.
- AMA Atenk zabal zabalik dituk seme, ez ote haiz, hire etxearen ?

- JAKES Bai eta ez.
- AITA Zendako mintze haiz hola ?
- JAKES Zeren etxea zuena da, zaapi haurride gira eta agian hemendik harat ez naiz beti bakarrik izanen. Lehenik bida eta gero berdin gahiago.
- AMA Noiz arte etorria haiz Eskual Herrirat ?
- JAKES Agian betikotz. Asca naiz lepo zintzurreraino pariseko bizi moldenz.
- AITA Eta hemen, zer egingo duk seme ?
- JAKES Letran ezarria dut aski garbiki aita.
- AMA (Bere baitan) Gure borda.
- JAKES Zer duzu hoin ilun ama ?
- AMA Deusik ez, Jakes, deusik ez (Nigarrez hasten da)
- AITA Zaude otoi ixilik emaztekia ni ere izerditan nago.
- AMA Hobe da aise izerdiaren xukatzen nigarren xukatzen baino.
- JAKES Baino otoi, errazue zer gertatzen den.
- AITA Huna... Berdin goiz edo berant, jakin behar duk. Hiru letra ukaitean, sedukotz gure borda...
- JAKES Gure borda ?
- AITA ...ez zukan gehiago gurea.
- JAKES Nolaz hori ?
- AITA Jaun mera gure etxerat etorri duk eta...
- JAKES Noiz etorri da ?
- AITA O...; Ez dakiat zuzen... Baizik eta bazuela adixkide haundi bat, hortz milion eran lezazketa gure borda zahar hortan.
- JAKES Eta zuuk abian saldu ?
- AITA Nik edo biek.
- AMA Jaun auzapezaz ere ederkí baliatzen baigira seme. Otoetako prozedurak, horri esker, ez ditinaguk pagatzen, bera poliz baten adiskidea delako.
- JAKES Eta orain gure bordaren jabea nor da ?
- AITA Jaun merak dibnez, ez duk nor nahi; gerlako kolpatu haundi bat duk, gizon ozagutua eta izigarri estimatua. Zer nahi medela eder

- JAKES baduela papoan; horek salbatua omen dik
Frantzia hiruetan segurik.
- JAKES (Xutitzen da) Biba hora.
- AMA Zer duk Jakes ?
- JAKES Deusik ez, amā, deusik ez, **zuk** ere gauza
bera erran dautazu ez du **aspaldi**.
- AITA Hik emanen hintuen borda **zahar** hortan bortz
miliuh ?
- JAKES Ez aita, baina dena da **heian nahi** duzunez
semea auzo ala nunbeiteko norbeit sekulan
ikusia ez duzuna ?
- AMA Guhaur chartu ere gabe, zepoan sartu gaituk Jakes
- JAKES Neska batzuek ere hola egiten dute : bihotza
hesten maite dutenari, moltsa **idokitzeko**
beren ohoinari.
- AITA Ez haitugu laguntza eskasean **utziko** seme,
bertzen ixilik ukaneñ duk **bortz** miliun
horietarik bat hiretzat.
- JAKES Fracuan nahi baduzu arizan jaun merarekin,
ar zaite, hora makinuna da : **ni ez**.
- AMA Baina Jakes, miliun bat...
- JAKES Ez amā.
- AITA Sos beharrak zer nahi egih **aranzten** dik seme.
- JAKES H erriko buruzagi batek ere **bai** nita.
- AITA Orain hola duk, baizuek **saltzen** ditiztek
bordak eta bertzek berdin **lurrak**.
- JAKES Bai, eta bertze batzuek berriz beren herriko
gazteak, eta beren haurrak.
- AMA Barka zak, Jakes, barka zak otoi.
- JAKES Ez duzu barkamendu eskatze beharrik ana,
ez da zuen hutsa jaun merak gure borda
erosia bainbadu, zuek nere letra hartu baino
lehen.
- AITA (Nigarrez. Bere baitan) Jakin ukai banu.
- JAKES Xukazkitzu begi horiek, aita, ala ez ote dakizu
emazteak eta haurrak direla bakarrik nigarrez
artzen ?
- AITA Zer nahi duk, nere **bihotza** ez baita harriz egina.

40

- JAKES Hola balitz hobe. Borrik harria purruskatzen baitu eta burdin gainean aldiz beti punpatzen baita. Frantzian salbatu duenak, eta Jainkoak lagun zaitzatela...
- AMA Norat hoa seme?
- JAKES Ez dakit ama... Nik ez dut aterberik. Batzuek badute bat Frantzian, beste bat Espainian eta hirugarrena Eskual Herrian... Ni, deus gabe naiz... Alta, ez nautzuen gauza haundirik galdatzen... Ez nautzuen gauzi haundirik galdatzen... Borda zahar bat, aspaldian hutsik dagona... Pagatuko nautzuen prezio zuzena... Ez nautzuen gauza haundirik galdatzen. Agur ama...
- AMA Jakes, otoi Jakes, ago gurekin.
- JAKES Ez am...
- AMA Ez hut joaiten ikusi nahi. Nahiago diat gorde (Eta joaki da)

AITA-JAKES

- AITA Jakes, ez zakala haukeriarik egin... Biziki pena haundia eginen daukuk.
- JAKES Pena haundiengana egina da. Agur aita.
- AITA Dominika, Dominika, Jakes badoa... (Eta joaki da)
- JAKES Batzutan uste gimu ke, norbeit girela... Eta ororen buru, deus ez gira.

JAKES-MARI TXU

- MARI TXU (Sartzen da) Jakes, bakarrik haiz... (Besarkatzen dira)
- JAKES BBi, bizian, beti bakarrik gaitun.
- MARI TXU Bazakint bordaren beri. Ama zerbeit erran dai-tak. Zer egin gogo duk?
- JAKES Zer egin Maritxu? Etorri bezala joan...
- MARI TXU Norat joan?
- JAKES Nihaurek banaki...
- MARI TXU Ago hemen...
- JAKES Ez. Ez nun gahiago minuta bat ere egoiten shal.
- MARI TXU Jakes, min eginen deat baina adi nezale... Gauza errexena ioniten duk.

- JAKES Zer dion ?
- MARITXU Bai, joan, joan, joan... Bainha hitz horien partez behar litakek erran ; geldi, geldi, geldi... Gure duk, alabaina, gure herriko giderren hartza... Ihesi eginez, ez duk gure Herria aintzinatuko... Galduko baizik.. Egiazko problemeri burua itzultzea, hori ez duk gizonki jokatzea...
- JAKES Mariotxu, min haundiegia egiten daitan.
- MARITXU Gure galtzaileak hor dituk, beti erne, beti berme. Hemendik joaitea, horieri amoe emaitza duk... Geldi hadi, Jakes, geldi hadi...
- JAKES Bihotza sobera zauritua dinat... Ez hut gehiago entzuten ahal... Begiak erretzen ari zaiztan, burua sutan dinat. Agur Maritxu.
- MARITXU Jakes. (Besarkatzen dira) Eta Jakes, emeki; emeki, kanpora doa. Soinua entzuten da) Jo soinua, jo... Egin besta... Jo soinua, jo... Ahantz nor giren eta nora goatzin. Hets begiak eta tapa beharriak. Lokar gaiten... Edo izaitekotz gauden lo... Loak loa dario... Iratzartzeak ditu lanak emanen... Bainha gu iratzartzen hasiak gira. Eta egun batez denak iratzartuko gira... Orduan, orduan txintxin mariak.

(Aita eta ama agertzen dira)

MARITXU-AITA-AMA

- AMA Jakes nun da ?
- ALABA Joana (Lasterka, leihora buruz doa)
- AMA Jakes, Jakes
- AITA Ikusten duzu ?
- AMA Bai.
- AITA Ikusten duzu ?
- AMA Gure borda bai.
- AITA Ikusten duzu ?
- AMA Borda bai.
- AITA Ikusten duzu ?
- AMA Bai?
- AITA Gure semea ikusten duzu ?

z horien
Seldi,
erriko
duk
baizik..
lori ez

- AMA Hantxet doa, hantxet doa.
 AITA Igussten duzu ?
 AMA Ez.
 AITA Gure borda saldu.
 AMA Ta gure seben saldu.
 ALABA Borda saldu, serien saldu... Bainha hori zer
 da ? Ez ote zirezka boda ohartzen, denan galtzen
 ari girela ?

JEAN-PIERRE MENDIBOURNE

1971-ko udazkenean Heletan.

